# Informazioa

## Gorliz Ospitalea

### SARRERA SOLAIRUAN

Sarrera onarpenean formalizatuta, zeure gelara lagunduko dizugu. Solairuko pertsonalak solairuko funtzionamenduari eta behar dituzun arropa eta lanabesei buruzko azalpen guztiak emango dizkizu.

### MEDIKUAREN BISITA

Medikuak Ospitalean ingresatzen zaren egunean atendituko zaitu, bai eta informatu ere zure osasun-egoera eta tratamenduari buruz. Berton zauden bitartean atenditzen zaituen medikuak zure eboluzio eta tratamenduen aldaketez informatuko zaitu. Ez eduki zalantzarik: eskatu behar dituzun argibideak.

Medikuak goizez bisitatuko zaitu. Senideei aholkatzen diegu bisita-aldi horretan geletan eta pasilloetan ez daitezela egon, konfidentzialtasuna eta pazienteen intimitatea zaindu beharrez. Bisitaren ostean medikuak senideekin berba egingo du, edo horretarako eguna eta ordua eurekin adostuko ditu. Informazioa senide zuzenei bakarrik emango zaie, edo idatziz baimendutako pertsonari.

### MEDIKAZIOA

Ospitaleak emandako medikamentuak bakarrik hartu, hau da, medikuak agindutakoak eta erizainak ematen dizkizunak. Zure kontura ez hartu medikamenturik; hartu aurretik beti galdetu.

### GAIXOARI ARRETA

Gaixoari arreta-zerbitzua; hortxe lagunduko dizue ospitaleratzearekin zerikusian dituzun arazo guztiak. Zerbitzu horrek hartuko dizkizu, baita, egin gura dituzun iradokizun guztiak edo eduki ditzakezun kexa guztiak ere.

### BISITEN ARAUDIA

* **Ordutegia**: ez dago ordutegi- murrizketarik pazienteen atsedenaldia errespetatuz gero.
* **Laguntzaileak**: ez dago mugarik laguntzaile kopuruaren aldetik, baina **gelan pertsona bat** baino ezin izango da egon paziente bakoitzeko.



### OTORDUAK

Ospitaleak ematen dizun dieta zure tratamenduaren parte bat da, eta beraz, egokiena emango dizugu. Ez hartu beste janaririk aurretik kontsultatu barik.
Higieneagatik, ez gorde janaririk mahaitxoetan.

| Otorduak: | |
|---|---|
| Gosaria | 8,30h. |
| Bazkaria | 13,00h. |
| Askaria | 16,30h. |
| Afaria | 19,30h. |

### KAFETEGIA

Kafetegia 8etatik 20etara egoten da zabalik.

### TABAKOA

Legearen arabera, Ospitalean ezin da erre, ez barruan ez lorategietan.

### TELEFONO DEIAK

Kanpotik geletara deitzeko telefono-zenbakia 94.677.58.17 da, erantzungailu batek galdetuko dizu gelaren zenbakia zein den. Kanpora deitzeko eta senideek erabiltzeko kabinak Ospitaleko leku ezberdinetan daude.

### OBJEKTU BALIODUNAK

Ez utzi geletan objektu baliodunik edo dirurik. Desagertuz gero, ez da gure erantzukizuna izango.

### ALTA

Txosten bat emango dizugu zure gaixotasunaren eboluzio eta jarraitu beharreko tratamenduari buruz. Zalantzarik badaukazu, kontsulta ezazu.
Goizeko 12:00ak baino lehen irten beharko duzu Ospitaletik.
Kontuan hartu zure tratamendua amaitu dela eta beste gaixo bat itxaroten egon daitekeela

urte 30 años
Osakidetza

# GORLIZ

# Ospitaleko Ingresua



Osakidetzako zareko Gorlizko Ospitalean sartu zara. Gure helburua zure osasuna hobetzea eta gure arteko zure egonaldia ahal denik eta positiboena eta atsegingarriena izatea da; hori dela-eta bertako funtzionamenduari buruzko informazio labur bat ematen dizugu, baliagarri izan dakizukeelakoan. Puntu horiek zehatzago ezagutu behar badituzu edo beste informazio-mota bat jakin, edo zalantzaren bat argitu behar baduzu edo jakinarazpen bat eman, ikuskatzailetzara edo zure solairuko erizaintzara joan zaitezke.

POSTA-HELBIDEA
Gorlizko Ospitalea.Urezarantza Ibiltokia K. - 48630 GORLIZ (Bizkaia)

| Ospitaleko telefonoak | |
|---|---|
| Telefono-gunea | 944 006 600 |
| Harrera-gunea | 944 006 601 |
| Logelak | 946 775 817 |

BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK
Trenen eta autobusen ordutegiak
Taxiak
Ostatuak
Horiei buruzko informazioa behar baduzu, eska ezazu INFORMAZIOKO mostradorean.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD